

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN EMAKIDA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. Artikulua- Xedea

Ordenantza honen bidez Valle de Trápaga-Trapagaranen erroldaturiko pertsonen euskalduntze ikastaroen matrikulak ordaintzeko diru-laguntzak emateko politika ezartzen da.

2. Artikulua- Diruz lagunduko diren ikastaroak

a) Diruz lagundu daitezke euskaltegi publikoetan zein HABEk homologaturiko euskaltegi pribatuetan eta Hizkuntza Eskola Ofizialean egindako ikastaroak.

b) Urte guztian zehar egindako ikastaro guztiak subentzionatu daitezke.

c) Ez dira diruz lagunduko hezkuntza zentroetako edo Guraso Elkarten euskarazko eskolaz kanpoko jarduerak.

3. Artikulua- Onuradunak

a) Valle de Trápaga-Trapagaranen erroldaturiko pertsonak, gutxienez ikasturtea hasi baino urte bete lehenago eta diruz lagundutako urtean zehar erroldatuta badaude.

b) Ezin dute diru-laguntzarik jaso 2. artikuluan aipatzen ez diren zentroetan ikastaroak egin dituztenek, edo lantokietako berariazko programen bidez ikasi dutenek (IRALE, IVAP-aren bidezko ikastaroak eta abar) ezta euren enpresetako edo erakundeetako diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsona guztiak.

4. artikulua- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

a) Eskaerak Valle de Trápaga-Trapagarango Udal Erregistroan aurkeztu beharko dira, jendearentzako ordutegiaren barruan (9etatik 13etara), diruz laguntzeko eskatuko den ikasturtea amaitu eta hurrengo urriaren 1etik 31ra.

5. artikulua- Eskatzen diren agiriak

a) Eskaera-inprimakia, behar bezala bete. Eskaera-orria eskuragarri egongo da Udal Erregistroan, Udal Euskaltegian, Solas AEK euskaltegian eta webgunean.

b) NANren fotokopia. 18 urtetik beherakoek NANik ez badute euren guraso edo tutoreetako baten NANA adierazi beharko dute eskaera-orrian.

c) Ikasturtean zehar ikasi duen euskaltegi edo HABEk homologaturiko zentro edo Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzaren ziurtagiria, honakoak zehaztuta agertu beharko direlarik:

- Matrikularen prezio osoagatik ordainduriko diru-kopurua edo kopuruak.
- Hartutako klaseen portzentajea. Zehaztu egingo dira zentroak guztira eman dituen eskola-orduak eta ikasleak jaso duen ordu kopurua.

d) Horretarako den idazkia aurkeztu beharko da, dagokion kontu zenbakia, haren titularra eta NAN zenbakia ipiniz.

6. Artikulua.- Diru-laguntzaren zenbatekoa

a) Diru-laguntzen urteroko kontsignazioa udal aurrekontuan jasota egongo da. Hortaz, zenbateko hori ez bada nahikoa diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten pertsona guztien eskaerak estaltzeko, hainbanaketa egingo litzateke onuradun pertsona guztien artean.

b) “%75erainoko edo %50erainoko diru-laguntza eman daiteke euskaltegi publiko eta HABEk homologaturiko euskaltegi pribatu edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko matrikularen prezio osoan sarturiko kontzeptu guztientzat, kontuan hartuta ikasketak herriko euskaltegietan egiten diren ala kanpoko euskaltegietan egiten diren.

c) Laguntzaren diru-kopurua honakoa izango da:

- Matrikularen prezio osoan sartzen diren kontzeptu guztien %75, herriko euskaltegietan ikasten duten herritarrentzat eta %50, herritik kanpo ikasten dutenentzat.
- %75 matrikularen prezio osoan sarturiko kontzeptu guztientzat, eskatzaileak egiaztatzen duenean familia unitateko kide bakoitzaren sarrerak aurreko urtean ez zirela izan urte horretako lanbidearteko gutxienezko soldataren %60 baino handiagoak.
- HABEko diru-laguntza jasoz gero, ordaindutako matrikulari HABEtik jasotako diru-kopurua deskontatu ondoren geratzen den matrikularen zatiari aplikatuko zaizkio gorago aipaturiko portzentajeak.

7. Artikulua.- Diru-laguntzen baldintzak eta ordainketak

a) **ESKATZAILEAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:**

- Behar bezala egiaztatzea “Eskatzen diren agiriak” atalean agertzen diren agiriak.
- Matrikularen prezio osoa ordainduta edukitzea.
- Gutxienez, egindako ikastaroen %85 ordura joan izana. Ziu-tagiri ofizialen bidez justifikatu diren faltak ez dira gainerako hutsegiteekin batuko.
- Udal zergak ordainduta edukitzea.

b) Ikasleak ez baditu ziu-tagiriak aurkezten ezarritako epeetan, diru-laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

c) Diru-laguntzaren kopurua eskaera-orrian adierazi den kontu-zenbakian sartuko da.

8. Artikulua.- Emateko prozedura

Diru-laguntzak lehiakortasunaren bidez emango dira.

9. Artikulua.- Diru-laguntzaren izapidea

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, Euskara Sailak diru-laguntzak esleitzea proposatuko du Informazio Batzordean, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.

10. Artikulua.- Organo eskudunak

Euskarako Informazio Batzordea da diru-laguntzak egilesteke behin behineko ebazpena emateko eskumena duen organoa.

Tokiko Gobernu Batzarra da diru-laguntzen emakida onartzeko organo eskuduna.

11. Artikulua.- Diru-laguntzaren emakidaren ebazpena jakinarazteko epea.

Diru-laguntzaren emakidaren ebazpena hartu eta 15 eguneko epearen barruan jakinaraziko zaie onuradunei.

12. Artikulua.- Diru-laguntzaren ordainketa

Onartzen den unean ordainduko da diru-laguntzaren %100, oinarri hauen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.

13. Artikulua.- Inguruabarren aldaketa

Diru-laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak hein handi batean aldatzen badira, ebazpena ere aldatu ahal izango da.

14. Artikulua. – Beste diru-laguntza edo sarrera batzuekiko bateragarritasuna.

Emandako diru-lagutzak bateragarriak izango dira helburu bererako lor litezkeen beste edozein diru-laguntza edo sarrerarekin.

Jasotako diru-sarreraren eta udal diru-laguntzaren batura ez da ikastaroaren matrikularen ordainketak sortu duen gastua baino handiagoa izango.

ERANSKINA

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA

..... Jn./ And.

NAN zk. Helbidea

P.K. Telefono zk. Kontu zk.

Kontuaren titularra..... NAN.....

Euskara ikasi den ikastegia eta herria

Euskara ikasteko diru-laguntzen emakida arautzen duen ordenantzaren 5. artikuluan eskatzen diren agiri guztiak aurkeztu ditut.

Berariazko baimena ematen dut HABEri helarazteko nire datu pertsonalak eta Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak eman didan diru-laguntzaren kopurua.

Ordenantzaren 7. artikularen c) atalean eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditudala aitortzen dut.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 20....ko renn

Izptua.: